

Zergatik aplikatzen dira kontrol epidemiologikorako protokolo espezifikoak sasoiko lanak hartzen dituzten eremuetan?

- Sasoiko lanen ondorioz, 2.000 pertsona baino gehiago etortzen dira urtero Euskadira. Eremu jakin batzuetara doazen pertsonen artean kontrol epidemiologikoa ziurtatzeko, pandemia kontrolatzeko protokolo espezifikoak ezartzen dira.
- Lan horietan ohikoa izaten denez langileak beste langile batzuekin partekatutako espazioetan bizitzea, garrantzitsua da osasun-baldintza onenak bermatzea, kasuren bat baieztatuz gero birusa zabaltzea saihesteko.

Zer prozedura aplikatuko zait lanean hasi aurretik?

- Lanean hasi aurretik, PCR proba egiteko aukera eskainiko zaio, baheketa modura, sasoia betetzeko lekualdatutako langile orori.
- Proba horren emaitzak erabakiko du une horretan pertsonak COVID 19aren infekzio aktiboa duen, eta aukera emango du berehalako neurriak ezartzeko gaixotasunaren transmisio-kateak mozteko.
- Proba hori egitetik salbuetsita egongo dira gaixotasuna azken 90 egunetan igaro dutela egiaztatzen duten pertsonak (emaitza baliozkotua duen laborategiko txostena eskatuko da).

Zer gertatuko da test diagnostikoaren emaitza positiboa bada?

- SMS bat jasoko duzu zure telefono mugikorrean, emaitzarekin (zure zenbakia lehenago eman baduzu).
- Zaintza Epidemiologikoko talde bat zurekin harremanetan jarriko da telefonoz, zure kasua baloratzeko eta zure harreman estuak (bizikideak, lankideak, gizarte-harremanak, etab.) nortzuk izan diren zehazteko. Zure egungo bizilekuak isolamendua egiteko beharrezko segurtasun-baldintzak betetzen dituen edo hotelera eramatea komeniko litzatekeen ere baloratzeko dute profesional horiek.
- Gutxienez 10 egun eman beharko dituzu isolatuta, sintomak hasi direnetik edo proba egin dizutenetik, gaixotasunaren sintomarik ez baduzu. Aldi hori luzatu egin daiteke sintomak irauten badute. Lehen mailako arretako talde batek aldizka deituko dizu zure bilakaera klinikoa baloratzeko eta alta noiz eman zehazteko.



Zer gertatuko da test diagnostikoaren emaitza negatiboa bada?

- SMS bat jasoko duzu zure telefono mugikorrean, emaitzarekin (zure zenbakia lehenago eman baduzu).
- COVID 19aren sintoma susmagarriak ez baduzu eta baieztatutako kasuren batekin kontakturik eduki ez baduzu azken egunetan, berehala hasi ahal izango zara lanean.

Nor jotzen da kontaktu estutzat?

Maskara modu jarraitu eta egokian eduki gabe, baieztatutako COVID 19 kasu batekin 15 minutu baino gehiago eta 2 metro baino gutxiagora egon den pertsona oro.



Zer gertatuko da kontaktu estua izanez gero?

Kontaktu estua izanez gero, **Zaintza Epidemiologikoko Taldearen deia** jasoko duzu, zure kasua baloratzeko eta **zure txertaketa-egoeraren arabera edo gaixotasuna duela gutxi gainditu izanaren arabera** egokiak diren jarraibideak emateko.

Zer gertatuko da kontaktu estua izanez gero eta txertaketa osoa eduki ez edo COVID-19a gainditu ez badut?

- **Txertaketa osoa egiaztatzen ez baduzu eta/edo gaixotasuna azken 180 egunetan gainditu baduzu, eta duela gutxi kontaktu estua izan baduzu, gutxienez 10 eguneko berrogeialdia bete beharko duzu.** Proba diagnostiko baten lehen emaitza negatiboa izateak esan nahi du laginean ezin izan dela birus arrastorik atzeman, baina horrek ez du esan nahi inkubatzen ari ezin zaitezkeenik. Horregatik, **garrantzitsua da arrisku-esposiziotik 10 egun horietan berrogeialdian egotea, sintomarik izan ez arren.** Aldi horren amaieran beste PCR bat egingo zaizu, berriz negatiboa bada eta sintoma susmagarririk gabe jarraitzen baduzu, berrogeialdiaren amaiera adieraziko zaizu.
- Zaintza Epidemiologikoko Taldeak balorazio bat egingo du egungo ostatuak berrogeialdia egiteko beharrezko segurtasun-baldintzak betetzen dituen edo hotel batera lekualdatzea beharrezkoa den zehazteko.

Zer gertatuko da kontaktu estua izanez gero eta COVID-19a aurreko 180 egunetan gainditu badut edo txertaketa osoa badut?

- **Gaixotasuna aurreko 90 egunetan gainditu baduzu:** COVID-19aren sintoma susmagarririk ez baduzu, **ez duzu ez proba diagnostikorik ez eta 10 eguneko berrogeialdirik egin behar.**
- **Gaixotasuna aurreko 90-180 egunetan gainditu baduzu eta/edo txertaketa osoa egiaztatu baduzu:** betiere COVID-19aren sintoma susmagarririk ez baduzu, **EZ duzu 10 eguneko berrogeialdia bete behar,** baina **PCR bat** egin beharko duzu kasu positiboarekin azken kontaktua izan eta **8 egunera.**
- **Bi kasuetan, honako gomendio hauek hartu behar dituzu kontuan:**
 - Maskara zuzen erabili gizarte-interakzioetan.
 - Ez joan ekitaldi jendetsuetara.
 - Ez eduki kontakturik pertsona zaurgarriekin eta txertatu gabeko pertsonekin.
 - Kasu positiboarekin azken kontaktua izan eta hurrengo 14 egunetan, sintoma bateragarrien agerpena zaindu.

Zer esan nahi du txertaketa osoa edukitzeak?

PFIZER txertoa

Bi dosi jarrita izatea eta azken txertoa jarri zenetik 7 egun baino gehiago igaro izana.

MODERNA txertoa

Bi dosi jarrita izatea eta azken txertoa jarri zenetik 14 egun baino gehiago igaro izana.

ASTRAZENECA txertoa

Bi dosi jarrita izatea eta azken txertoa jarri zenetik 14 egun baino gehiago igaro izana.

JANSSEN txertoa

Dosi bat jarrita izatea eta 14 egun baino gehiago igaro izana.

Txertaketa-pauta mistoa

1. dosia AstraZeneca + 2. dosia Pfizer eta azken txertoa jarri zenetik 7 egun baino gehiago igaro izana.

1. dosia AstraZeneca + 2. dosia Moderna eta azken txertoa jarri zenetik 14 egun baino gehiago igaro izana.

Txertatzeko aukera emango didate?

Bai, txertatuta ez bazaude, laginak jasotzen diren leku berean egiteko aukera eskainiko zaizu. Onartuz gero, **Janssen** txertoaren dosi bakarra emango zaizu.

Nola lor dezaket nire COVID-19 ziurtagiri digitala?

Sar zaitetz Ministerioaren web-orriko esteka honetan:
<https://www.mscbs.gob.es/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov/ccd/ccaa.htm>

Esteka irekitakoan, Ministerioaren web orria agertuko da Espainiako mapa batekin. Txertoa hartu duzun edo COVID-19aren proba positiboa izan duzun autonomia erkidegoan klikatu behar duzu zure ziurtagiria lortzeko:



- Nivel 1: CCAA o Ciudades Autónomas en disposición de emitir el Certificado COVID Digital de la UE mediante solicitud presencial y/o electrónica en sus tres modalidades: vacunación, recuperación y pruebas
- Nivel 2: CCAA o Ciudades Autónomas en disposición de emitir el Certificado COVID Digital de la UE mediante solicitud presencial y/o electrónica en dos modalidades: vacunación y recuperación
- Nivel 3: CCAA o Ciudades Autónomas que emiten mediante solicitud presencial y/o electrónica alguna de las modalidades de certificado: vacunación, recuperación o pruebas
- Nivel 4: CCAA o Ciudades Autónomas en fase de pruebas técnicas

! OHARRA

Txertoa hartu baduzu edo COVID-19aren proba bat egin baduzu **BESTE HERRIALDE BATEAN** eta emaitza positiboa izan baduzu, garrantzitsua da informazio hori jasotzen duen dokumentua ekartzea, edukiz gero.

Zer gertatuko da isolamendua/berrogeialdia amaitzen denean?

Alta jaso ondoren, zure bizilekura eramango zaitugu berriro, eta berehala hasi ahal izango zara lanean.

Jasoko al dut ordainsari ekonomikorik berrogeialdian/isolamenduan igarotzen ditudan egunetan?

Sinatutako lan-kontratu bat baduzu, eta kasu edo kontaktu estutzat hartzen bazaituzte, aldi baterako lanerako ezintasun bat kudeatuko zaizu. Horrela, konpentsazio ekonomiko bat jaso ahal izango duzu, isolatuta edo berrogeialdian egon zaren egunengatik.

Nora eramango naute kasu gisa baieztatu edo kontaktu estutzat jotzen banaute?

Aldi baterako egungo bizilekuan isolamendua eta/edo berrogeialdia betetzeko ezintasuna baloratzuz gero, jendea bizi den hoteletara bideratuko da.



Zamudioko Teknologia Parkea. 806 Eraikina, Bizkaia

Kontaktu estutzat edo baieztatutzat jo bazaituzte, hotel horietara bideratzea planteatu ahal izango zaizu, **isolamendu segurua bermatzeko, betiere zure koadro klinikoaren larritasunak ospitaleratzea eskatzen ez badu.**

- ✓ Zerbitzu horiek doakoak dira bertara eramandako pertsonentzat, eta ostatu- eta janari-zerbitzuak eskaintzen dituzte. Norberak ibilgailurik ez badu, anbulantzian edo autobusean egin ahal izango da lekualdaketa, eta ez du inolako kosturik izango gaixoarentzat.
- ✓ Lehen mailako arretarekin koordinatuta, erizain talde bat arduratuko da aldian-aldian deitzeaz, hotelera eramandako pertsonen egoera klinikoa eta premiak baloratzeko.
- ✓ COVID 19 Kasuak eta Kontaktuak Zaintzeko Sareak interpretazio-zerbitzu bat aktiba dezake komunikazioan laguntzeko eta hizkuntza-hesia gainditzeko. Baita beharrak zein laguntza detektatzen eta **gizarte-baliabideak aktibatzen eta kudeatzen** espezializatutako profesionalak ere, **gizarte-eragile komunitarioekin koordinatuta.**
- ✓ Gogoratu maleta txiki bat eraman behar duzula zure gauza pertsonalekin, arropa beroarekin, tratamendu farmakologikoarekin, mugikorraren kargagailuarekin, liburuekin, entretenitzeko materialarekin. **Garrantzitsua da isolamenduak/berrogeialdiak iraungo duen egunetarako beharko duzun guztia eramatea.**

Zer gomendio orokor bete behar ditut gaixotasuna transmititzeko arriskua txikitzeko?

CORONAVIRUS

EVITA LA TRANSMISIÓN
REDUCE LOS CONTACTOS

- 

1 UTILIZA MASCARILLA.
RECUERDA QUE SU USO ES OBLIGATORIO
- 

2 LÁVATE LAS MANOS
- 

3 MANTÉN LA DISTANCIA DE SEGURIDAD (MÍNIMO 1,5 M)
- 

4 EVITA LAS AGLOMERACIONES DE PERSONAS.
SUPONEN UN IMPORTANTE FOCO DE TRANSMISIÓN DEL VIRUS
- 

5 EVITA TOCAR SUPERFICIES COMUNES.
SI LO HACES, LÁVATE LAS MANOS
- 

6 CUANDO LLEGUES A CASA, LIMPIA LO QUE PUEDA ESTAR CONTAMINADO

SI TIENES ESTOS SÍNTOMAS



TOS



DOLOR DE GARGANTA



PIEBRE +37°



SENSACIÓN DE FALTA DE AIRE



PÉRDIDA DE OLFATO

AISLAMIENTO



PERMANECE EN CASA.
PODRÍAS ESTAR CONTAGIADO



CONTACTA CON TU CENTRO DE SALUD

Osakidetza

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Non aurki dezaket informazio gehiago?

Osasun Sailaren komunikazio-kanal ofizialetan kontsulta dezakezu informazio osagarria:
<https://www.euskadi.eus/material-informativo-coronavirus/web01-a2korona/es/>